



2013

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
07. Lehendakaritza 07. <i>Presidencia</i>	11. Hirigintza 11. <i>Urbanismo</i>	430.201 Kudeaketa Orokorra, Lurralde Antolamendu eta Hiri Plangintza 430.201 <i>Gestión General,</i> <i>Ordenación Territorial y</i> <i>Planificación Urbana</i>

Kudeaketa Orokorreko, Lurralde Antolamenduko eta Hiri Plangintzako egitarauak hiru jarduketa-ardatz ditu:

- Kudeaketa orokorra.
- Lurralde antolamendua eta hiri plangintza.
- Kartografia egitea

Kudeaketa Orokorren arloak estaldura ematen die Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusiko administrazio unitate guztienak diren bulegoak mantendu eta zaintzeko beharrezko materialei eta administrazio kudeaketa orokorraren esparrukoiei.

Helburu horrekin hainbat jarduera desberdin garatzen dira askotariko alorretan, hala nola kontratazio administratiboa, gastuen eta diru sarreren aurrekontuaren kontrola, tramitazioa eta jarraipena, aholkularitza juridikoa, diru-laguntzetarako deialdien oinarriak prestatzea, hitzarmenak prestatzea, sailaren egoitzak, informatikako ekipamendua eta gainerako hornidurak eta baliabide materialak zaindu eta mantentzeko eta konponketa arruntak egiteko behar diren neurriak hartzea, eta abar.

Lurralde Antolamenduaren eta Hiri Plangintzaren arloak honako helburu hauek ditu:

- Hirigintza plangintza onestea Eusko Legebiltzarraren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako eskumenei jarraiki.
- Indarreko hirigintza plangintzako agiriak artxibatu eta mantentzea eta administrazio erregistroak kudeatzea herritar guztiei zuzendutako informazio horri heltzeko, bai inprimatutako euskarrian, bai euskarri informatikoan.

El programa de Gestión General, Ordenación Territorial y Planificación Urbana se articula en tres ejes diferentes de actuación:

- La Gestión General.
- La Ordenación Territorial y Planificación Urbana.
- La elaboración de cartografía

El área de Gestión General da cobertura a las necesidades materiales, de mantenimiento y conservación de las dependencias y de gestión administrativa general y comunes a todas las unidades administrativas de la Dirección General de Relaciones Municipales y Urbanismo.

Con tal finalidad se desarrollan actividades de diferente naturaleza en materias de muy diversa índole como la contratación administrativa, el control, tramitación y seguimiento del presupuesto de gastos e ingresos, el asesoramiento jurídico, la preparación de bases de convocatoria de subvenciones, convenios, la adopción de las medidas oportunas para la conservación, mantenimiento y reparaciones ordinarias de las dependencias departamentales, equipamiento informático y demás suministros y medios materiales, etc.

El área de Ordenación Territorial y Planificación Urbana tiene los siguientes objetivos:

- La aprobación del planeamiento urbanístico de acuerdo con las competencias establecidas en la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.
- El archivo y mantenimiento de los documentos de planeamiento urbanístico vigente y la administración de los registros administrativos para cubrir esta información dirigida a toda la ciudadanía, tanto en soporte impreso como informático.

## Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
07. Lehendakaritza 07. <i>Presidencia</i>	11. Hirigintza 11. <i>Urbanismo</i>	430.201 Kudeaketa Orokorra, Lurralde Antolamendu eta Hiri Plangintza 430.201 <i>Gestión General,</i> <i>Ordenación Territorial y</i> <i>Planificación Urbana</i>

- Bizkaiko Lurralde osoaren hirigintza egoerari buruzko informazio eguneratua argitaratzea, Aldundiaren web orrialdearen bitartez.
- Lurraldearen antolamendurako baliabideak lantzea, Eusko Legebiltzarraren Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen babesean.

- La publicación de la información actualizada de la situación urbanística de todo el Territorio de Bizkaia a través de la página web de la Diputación.
- La elaboración de instrumentos de ordenación del territorio, al amparo de la Ley del Parlamento Vasco 4/1990, de 31 de mayo de Ordenación del Territorio.

Adierazitako helburu horiek lortu ahal izateko, gastu programa honek aurreikusi egiten du jarduera multzo bat egitea. Jarduera multzo hori Foru Aldundiak gai horien gaineko eskumen banaketan duen jarreratik eratorritakoak dira. Besteak beste, hurrengo biak dira azpimarragarri:

Para la consecución de los señalados objetivos, este programa de gasto contempla la realización de un conjunto de actuaciones derivadas de la posición de la Diputación Foral en la distribución de competencias sobre las citadas materias, entre las que sobresalen las dos siguientes:

- Udal Administrazioan edo Erkidegokoan sortutako hirigintza plangintzako espedienteak izapidetu eta ebaztea.
- Lurralde antolamenduko baliabideak proposatu, eratu eta izapidetzea.

- La instrucción y resolución de los expedientes de planeamiento urbanístico generados en la Administración Municipal o Autonómica.
- La formulación, confección y tramitación de instrumentos de ordenación territorial.

Bi jarduera eremu horiek behar bezala egiteko, zera besterik ez da behar: laneko zentroak mantentzera eta eguneratzera zuzendutako kredituak, dimentsio guztietan, eta lurralde antolamenduko baliabideak lantzean nahiz udal plangintza sustatzeko ekintzan aplikaturikoak. Langileen ordainsarien kapituluak erabateko nagusitasuna edukiko du, aipatutako jarduera horien izaera burokratiko eta intelektualaren isla fidela izaki.

El adecuado desenvolvimiento de estas dos áreas de actividad no requieren de otros créditos que los dirigidos al mantenimiento y actualización de los centros de trabajo, en todas sus dimensiones, así como los destinados a la elaboración de instrumentos de ordenación territorial y los aplicados a la acción de fomento del planeamiento municipal, con preponderancia absoluta del capítulo de remuneraciones del personal, fiel reflejo del carácter eminentemente burocrático e intelectual de las citadas actividades.

Kartografia atalaren helburua Bizkaiko Lurralde Historikoko informazio grafikoa eskuratzea da, beharrezkoa baita Garraioak eta Hirigintza Sailak berezkoak dituen eskumenak garatzeko nahiz Bizkaiko Foru Aldundiko beste sail batzuei eta beste administrazio eta erakunde publiko batzuei esleitutako betekizunak betetzeko.

El área de Cartografía tiene como objetivo el obtener la información gráfica del Territorio Histórico de Bizkaia que resulta necesaria para el desarrollo de las competencias propias de la Diputación Foral de Bizkaia, así como para el cumplimiento de los cometidos asignados a otros Departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia y a otras Administraciones e Instituciones Públicas.



2013

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

<b>SAILA / DEPARTAMENTO</b>	<b>ATALA / SECCIÓN</b>	<b>FUNTZIONALA / FUNCIONAL</b>
<b>07. Lehendakaritza</b> <b>07. Presidencia</b>	<b>11. Hirigintza</b> <b>11. Urbanismo</b>	<b>430.201</b> Kudeaketa Orokorra, Lurralde Antolamendu eta Hiri Plangintza <b>430.201</b> <i>Gestión General,</i> <i>Ordenación Territorial y</i> <i>Planificación Urbana</i>

2013 ekitaldian zehar, egitea aurreikusi diren jarduera zehatzak hauek dira:

- 7.000 biztanletik beherako udalerrien kasuan, egitura antolamenduko planei buruzko espedienteak ebaztea.
- 3.000 biztanletik beherako udalerrien kasuan, antolamendu xehatuko planei buruzko espedienteak ebaztea.
- Bateragarritasun planak ebatzi eta, hala badagokio, izapidetzea, horietan ekiteari buruzko udal erabakia hartu ez bada.
- Lurralde antolamenduko baliabideak lantzea.
- Aholkularitza orokorra eta kontsultetarako arreta.
- Erabilera baimenak urbanizagarria ez den lurzoruan.
- Bizkaiko Hirigintza Batzordearen administrazioa eta funtzionamendua.
- Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari laguntzea.
- Indarreko Hirigintza Plangintzaren Erregistroa edukitzea.
- Bizkaiko Hirigintzako Informazio Geografikoko Sistema kudeatu, eguneratu eta hobetzea.
- Plangintza orokorraren egoera eguneratzea internet bitartez.

Durante el ejercicio 2013 las concretas actuaciones que se tiene previsto realizar son las siguientes:

- Resolución de expedientes sobre planes de ordenación estructural en municipios de menos de 7.000 habitantes.
- Resolución de expedientes sobre planes de ordenación pormenorizada en municipios de menos de 3.000 habitantes
- Resolución y, en su caso, tramitación de planes de compatibilización, en los que no se haya alcanzado acuerdo municipal sobre su iniciativa.
- Elaboración de Instrumentos de ordenación territorial.
- Asesoramiento general y atención a consultas.
- Autorizaciones de usos en el suelo no urbanizable.
- Administración y funcionamiento de la Comisión de Urbanismo de Bizkaia.
- Asistencia a la Comisión de Ordenación del Territorio de País Vasco.
- Llevanza del Registro de Planeamiento Urbanístico Vigente.
- Gestión, actualización y mejora del Sistema de Información Geográfica de Urbanismo de Bizkaia.
- Actualización del estado de planeamiento general a través de internet.



2013

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

<b>SAILA / DEPARTAMENTO</b>	<b>ATALA / SECCIÓN</b>	<b>FUNTZIONALA / FUNCIONAL</b>
<b>07. Lehendakaritza</b> <b>07. Presidencia</b>	<b>11. Hirigintza</b> <b>11. Urbanismo</b>	<b>430.201</b> Kudeaketa Orokorra, Lurralde Antolamendu eta Hiri Plangintza <b>430.201</b> <i>Gestión General,</i> <i>Ordenación Territorial y</i> <i>Planificación Urbana</i>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Hirigintza Arloan Interesa Duten Elkarteek Erregistroa Kudeatzea.</li><li>- Diru-laguntza ildo bat sustatzea, Bizkaiko Udalei zuzendua, plangintza baliabideak egin ditzaten.</li><li>- Kartografia takimetrokoak egitea 1:500 eskalan.</li><li>- 1:500 eskalako kartografia ETRS89 proiektzio sistema geodesiko berrira bihurtzea.</li><li>- Antzinako hegaldietako fotogramak eskaneatzea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Gestión del Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Bizkaia.</li><li>- Promover una línea de subvención dirigida a los Ayuntamientos de Bizkaia, para la realización de instrumentos de planeamiento.</li><li>- Obtención de levantamientos taquimétricos a escala 1:500.</li><li>- Conversiones de los levantamientos 1:500 al nuevo sistema geodésico de proyección ETRS89.</li><li>- Escaneado de fotogramas de vuelos antiguos.</li></ul>	